

“BIZITAKO LEHIAKORTASUNA IZAN DA ESPERIENTZIARIK ONENA”



IES Hernani | Izpi Beltzak | Batxilergoa

Izpi Beltzak taldeko ikasleek lehen postua lortu dute Batxilergoa kategorian. Bestetan ez bezala, beraien erantzunak jaso ditugu hemen, irakasle/arduradunaren iritzien ordez.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Gure kasuan, irabazteko aukerak genituela ikusten genuenez, geroz eta gogo handiagoz egiten genuen.

Lehiketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Gure ikastetxean kosmodisea ez da ikasgai batean txertatutako jarduera bat; beraz, askotan arazoak izan ditugu denboraz ibiltzeko. Izan ere, azterketa garaietan taldekide guztiak elkartzea zaila egiten da.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Saria izateak motibazioa handitzen du, dudarik gabe, baina taldeen arteko kompetibitatea ere oso motibagarria da.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Guk uste, ikastetxeak eta irakasleek saria izateak ere, ikasleak parte hartzera gehiago bultzatzen dituela. Hala eta guztiz ere, ez dugu uste beraien lehen helburua saria irabaztea denik, baizik eta ikasleek beren helburuak lortzea.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientzia onena?

Gure esperientziarik onena lehketa guztian zehar bizi dugun kompetibitatea izan da. Beti egon gara bi taldeak ranking-ean goialdean eta hortaz, azken segundura arte elkarrekiko pikea izan dugu. Horretan asko eragiten du beste taldeen puntuazioa ez jakiteak, intriga handitzen baitu.

Zailtasunak handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Zailtasun handienak bideoak egiteko garaian izan ditugu; izan ere, bideoa konbertitu eta egin ahal izateko programa ezberdinak deskargatu behar izan ditugu.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Edizio hauekin ikasleak talde lanean aritzen trebatu dira, baita teknologia berriei aurre egiten eta beraien indarrarekin gauza handiak lor ditzaketela kontzientziarazten ere.

Eta irakasleei?

Irakasleek ikasi dutena ikasleei gauzak egitera bultzatu behar zaiela da, hasieran hastea kostatzen bazaie ere, gai direla erakutsi behar bait zaie.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Horrelako taldearekin eta irakaslearen laguntzaz, oso gustura hartuko genuke parte hurrengo kosmodisean. Esperientzia polita izan da eta oso ondo pasatu dugu. Irakaslearen laguntza aipagarria da.

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Guk uste dugu dagoen bezala oso ondo dagoela ekimen hau. Simulatzailea joku entretenigarria da eta pazientziaz jokatzeko ikasten digu. Puntuazioak ez jakiteak intriga pizten du. Bukatzeko, azken gala ere oso ona da. Guztiok oso ondo pasatu genuen.